

Azterketa-Diagnostikoa

Análisis-Diagnóstico

Ribera Bajako Udala

Ayuntamiento de Ribera Baja

1994



Ribera Bajako Udalaren azterketa-diagnostikoa

Análisis-diagnóstico del Ayuntamiento de Ribera Baja

1994

Vitoria/Gasteiz, 1996ko urtarrilak 18

Vitoria/Gasteiz, a 18 de enero de 1996



SARRERA

Ribera Bajako Udalak eskatutako fiskalizazioari dagokionez, horretarako behar adina baliabide eskura ez izanik eta HKEE honen Lan Planaren barruan aurrikusia ez izateagatik egiterik ez dagoenez, ikuskatze mugatua egin zaio. Horretarako, Udalaren 1994ko ekitaldiko Kontu Orokorrean bildutako dokumentazioa, Udalak 95.11.15ean HKEEko langileen eta udal idazkariaren artean izandako lan bilkuran emandako argibide osagarriak eta toki erakundeen 94ko ekitaldiko diagnostikoaren parte den barne kontrolari buruzko inkestaren azterketa erabili dira.

HEDADURA

Ikuskapen horretan hauxe egin da:

- Erabilitako kontularitza prozedurak aztertzea.
- Onartutako aurrekontua eta aurrekontuko exekuzio oinarriak aztertzea.
- 1994ko ekitaldian langileen egoera zein izan den aztertzea.
- Erabilitako administrazio kontrataziorako prozedurak aztertzea, baina espedienteen azterketa zorrotzik egin gabe.
- Zorpetzea aztertzea.

ONDORIOAK

Ondotik ematen ditugu lanean atera diren ondorioak, iharduketa esparruen arabera sailkatuz. Dena den, horiek ezin dira fiskalizazio lan baten emaitzat hartu eta bertan espresuki aipatzen ez diren alderdiak ere ezin dira orokortzat jo.

1. KONTABILITATEA ETA AURREKONTUAK

Ribera Bajako Udalaren aurrekontuak arlo horretan indarra duen foru arautegiaren (9/91 FA eta 985/92 FD) arabera egin dira. Udal aurrekontuari erantsirik, mamiz arrazoizkoa den Aurrekontu Exekuzioari buruzko Udal Araua ageri da.

Udalak onartutako Kontu Orokorrean ez zen ekitaldiko Aurrekontu Emaitzaren kalkulurik jasotzen, ezta 94.12.31n Diruzaintzako Soberakinekin finantzaturako gastuak ere. Honenbestekoak dira magnitude horiek:

	Milaka pta.
Aurrekontu Emaitza	(1.704)
Aurreko ekitaldietako Diruzaintzako Soberakinekin finantzaturako gastuak	7.279
Doitutako Aurrekontu Emaitza	5.575



	Milaka pta.
Kobratzeko geratzen diren zordunak	3.001
Ken zalantzako kobrantzako saldoak.....	(818)
Aurrekontuz kanpo ordaintzeko geratzen diren hartzekodunak.....	2.715
Diruzaintzako fondo likidoak.....	9.502
Diruzaintzako soberakin likidoa	8.970

Gastuak egiazko ordainketen arabera kontabilizatzen ari dira. Hortaz, aurrekontu eragiketen hartzekodunen kontzeptuan ez dago ordaintzeko saldirik.

Nahiz eta, lehenago adierazi bezala, Kontu Orokorrean Aurrekontu Emaitzaren kalkulurik jaso ez zen, badakigu idazkari-kontuhartzaileak haren ondoren kalkulatu zituela. Zenbateko horiek Udalbatzarraren Osoko Bilkurari jakinarazi behar zaizkiola uste dugu, 1995eko urriaren 27ko bilkuran onartutako zuzenketa baten gisara.

5.000 biztanletik beherako toki erakundeei ezartzekoa den arautegiaren arabera, gastua baimendu, xedatu eta agintzeko aurrekontu faseak pilatuz erregistratu ahal dira gastuak. Egiazko ordainketen araberrako erregistrorik ez da egin behar, ezta egin ahal ere.

Gastuak erregistratzeko kutxa irizpidetzat hartuz gero, hari dagozkion hainbat gastu erregistratu gabe geratuko dira ekitaldi bukaeran eta ordaintzeko dauden saldoak ere ez dira egiazkoak izango.

Era berean, dirusarrerak kobratu ahala erregistratzen dira eta ordaindu gabeko ordainagiri/likidazioak Derrigorrezko Dirubilketarako Agentziari eskualdatzen zaizkionean kontabilizatzen da kobratzeko dagoena. Derrigorrezko Dirubilketarako Agentziari egindako eskualdaketak likidazio eta ordainagiriei dagokien ekitaldiaren hurrengoan igortzen direla kontuan harturik, ekitaldi bukaeran erregistratu gabe geratzen dira ekitaldian sortu eta kobratzeko dauden diru kopuruak.

Aurrekontuak gastuak egiteko ezartzen dituen mugapenak betetzeari dagokionez, beste hau adierazi beharra dago: beharizan guztiei aurre egiteko adinakoak ez diren kontusailak kredituaz hornitzeko xedearekin aurrekontuan egiten diren aldaketak gastua betearazi ondoren egiten dira eskuarki. Aurrekoaren ondorio gisa, behar adinako aurrekontu babesik gabe egiten ari dira gastuak, nahiz irregulartasun hori ondoren zuzentzen den.

Aurrekontu aldaketak, gainera, "kreditu gehigarriak" figuraren azpian egiten ari dira soilik, baina transferentzien araubidea ezarri ezin denean baino ez erabiltzea komeniko litzateke.

Kreditu transferentziak erabiliko balira, aurrekontu aldaketak bizkorrago egingo lirateke eta administrazio lanaren karga ere arinduko litzateke.

2. EGOERA FINANTZARIOA

94.12.31n ordaintzeko dagoen zorra.....	27.409	mila pta.
Aurrekontuaren gaineko % zorra.....	% 54,7	
Likidatutako eskubideen gaineko % zorra.....	% 63,3	
1994ko karga finantzarioa.....	5.990	mila pta.
Aurrezki gordina (1).....	14.455	mila pta.
Aurrezki garbia (2).....	8.465	mila pta.
Zorpetzearen maila (3).....	% 14,27	
Zorpetzearen muga (4).....	% 34,45	
Per capita gastu publikoa (5).....	104	mila pta.
Inbertsio indizea (6).....	% 25,53	
Presio fiskala Toki Zergetan (7).....	43,6	mila pta.
Dirulaguntzen menpekotasuna (8).....	% 46,65	

(1) Dirusarrera aruntak (1. kap.etik 5.era) - Gastu aruntak (1, 2 eta 4. kap.)

(2) Aurrezki gordina - Karga finantzarioa (gastuen 3 eta 9. kap.)

(3) Karga finantzarioa / Dirusarrera aruntak x 100

(4) Aurrezki gordina / Dirusarrera aruntak x 100

(5) Ekitaldiko gastua / biztanle kop.

(6) Inbertsio gastuak + Kapitalaren dirulaguntza gastuak / Gastuak, guztira

(7) Zerga dirusarrerak (1, 2 eta 3. kap.) / biztanle kop.

(8) Transferentzien bidezko dirusarrerak (4 eta 7. kap.) / Dirusarrerak, guztira

Aurreko taulan agertzen diren ratioei buruz honako hau zehaztu beharra dago: 20.000 mila pezetako mailegu baten gabealdiaren amaiera dela eta, karga finantzarioa handitu egingo da etorkizunean, izan ere gutxi gora-behera 1.540 mila pezetako amortizazioa ekartzen du urteko.

Zorpetze mailari dagokionez, Udalak 94.12.31n duen egoera finantzarioa ontzat jo badaiteke ere, beharrezkoa da kontuan hartzea, gerora egingo den edozein dirusarrera proiektuk konponbide zaileko tentsio finantzarioak sor ditzakeela, haren finantzaketaren azterketa zorrotza egiten ez bada. Gainera, zorpetzeak eskubide likido osoen gainean ehuneko nabarmena izango du, urtean sortzen duen karga finantzarioa gehiegizkoa ez bada ere, izan ere mailegurik inportanteenak, 20.000 mila pezetakoak, 15 urteko epea du amortizatzen.

Zorpetzea ez handitzeko, etxebizitza sozialak zuzenean saltzeko sustapenik ez dela egin behar hartu behar da kontuan. Horren orde, babes ofizialeko etxebizitzaren itundutako sustapenari edo Eusko Jaurlaritzarekiko hitzarmenei heldu behar zaie.

3. LANGILEAK

- Udalaren plantila honakoez osatzen dute 94.12.31n:
 - Idazkari kontuhartzaile bat, estatu mailako gaikuntza duen funtzionarioa.
 - Udaltzain bat, funtzionarioa, 1995ean erretiratua.



Gainera, badago egun zatiz kontratutako administrari laguntzaile bat, haren lanpostua 1995eko aurrekontuan jasota dago.

- Foru Elkarkidegoaren 389 mila pezetako gastuak daude. Horien barruan 1994ko abenduari dagokion 32 mila pezetako gastua erregistratu beharra dago, 93ko ekitaldiko 47 mila pezetako gastuak jasotzen dituena.
- Udalaren funtzionarioak Gizarte Segurantzari sartu badira ere, Elkarkidetzaren kuotak ordaintzen jarraitu da, ekitaldiko gastua 494 mila pezetakoa izan da eta haietan 93ko ekitaldiko 71 mila pezetako gastuak jasotzen dira eta 1994ko abenduko kuotari kontularitzako erregistroa egin behar zaio oraindik.
- Batzarkideei dagokienez, sei hileko bakoitzeko 65 mila pezetako kuota ezarri da, atxikipenik gabekoa, Osoko Bilkurara joan edo ez.

Gainera, Aurrekontu Betearazpenari buruzko Udal Arauaren 47.3 artikuluan 1.500 pezetako ordainsaria izandatu zen orduko, alkate edo zinegotzi karguetan aritzearen ondorioz ekitaldian izaten diren gastuei kalte-ordaina emateko. Eraskinean jasotzen den txosten juridikoaren arabera, artikulua edukia ez dator bat indarreko legeekin.

Lehenago aipatutako kontzeptu horien guztien ondorioz, 954 mila pezetako gastua sortu da 94ko ekitaldian.


4. ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

Gastuaren azterketan honako akats hauek atzeman dira:

- Kultur Etxeko taberna errentan emateko eta kirol instalazioetako frontoia, igerilekua eta taberna ustiatzeko kontratuei dagokienez adierazi behar dugu, lehiaketa publikoaren bidez ematen badira ere, Administrazio Baldintza Partikularretan ez direla esleitzeko baldintzak jasotzen, nahiz aipatutako azken kontratuan berebiziko garrantzia duen, esleipena baldintza ekonomiko onenak eskaintzen ez zituen lehiatzaileari eman baitzitzaion.

Aurrerantzean egingo diren kontratuei begira, ondoko gomendio hau egiten dugu: azterketa zorrotzagoa egin beharko litzateke errenta hartzailearen betebeharrei eta kontratuen iraupenari buruz.

- SEMPak Udalarri lagatako siloa errentan ematen duen kontratuari dagokionez hau adierazi behar da: siloaren erabilera lagatzeko errentamenduak ondarearen indarreko legeriari buruzko araurik ez betetzea izan liteke, baita estatuko erakundeari lagapena geldiarazteko bidea ematea ere.



- Enpresa finantzarioarekin sinatutako kontratuaren bidez atzeratutako prezioarekin ibilgailu bat erosi da, sarrera bat emanik eta gainerako guztia 36 hilabetetan % 22,17ko tasa nominalarekin finantzaturik. Legeetan, ordea, galarazita dago eragiketa hori eta gainera ez da oso errentagarria ekonomi aldetik.
- Udal igerilekuko hornigaiak zuzenean erosten dira, administrazio espedienterik, kontraturik eta lehiarik gabe. Hortaz, indarreko legerian agindutako administrazio izapidaketak egitea gomendatzen da, argitalpen eta lehia printzipioak bete daitezela.
- Udalak 1.994 mila pezetako gastua egin du giza-kultur eta kirol ihardueretan, haur tailer, mantenimendu gimnasia, eskulan eta josteta irakasleei egindako ordainketei dagokiena. Baina horietarako ez dago kontraturik, dagokien lizentzia fiskala ez zaie eskatu eta ez zaie atxikipenik egin Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura.
- "Bullón benta - Baiako bidea - Remar" alderdiko uren saneamendu sarea eraikitzea 3.145 mila pezetaren truke esleitu zitzaion 3 eskaintzaren artean onuragarriena zenari. Aipatu sarea eraikitzeke espedientean esleipen prezioak % 22 egiten du gora, baina igoera hori onartu gabe dago eta espedientean ez da agertzen agerietan oinarriturik.
- Hirigintza eta Planeamenduko 642 kontzeptuan pertsona fisikoei hirigintza eta topografi txostenak ordaindu zaizkie 1.325 mila pezetatan. Ordainketa horietan ez zaie atxikipenik egin Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura.
- Rivabellosan sustapen publikoko etxebizitzak eraikitzeke lurra 30.352 mila pezetatan erosteko espedientean akats hauek atzeman dira:
 - Lehiarik ez gordetzea justifikatzen duen txostenik ez dugu ezagutu.
 - Ez da ezagutzen perituek orube erosiei buruz egindako tasaziorik.



I. ERASKINA

TOKI ERAKUNDEETAKO KIDEEN ORDAINSARIEI BURUZKO TXOSTENA

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1988 Legearen 75. artikuluan, toki erakundeetako kideen estatutuari buruzko kapituluaren barruan, haiei dagozkien ordainsariak arautzen dira.

Artikulu hori Toki Erakundeen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubideari buruzko 1986ko azaroaren 28ko Araudiaren (AFA) 13. artikulua bidez garatu zen.

Arautegi honek hiru bide eskaintzen ditu ordainsariak hartzeko:

- Soldata finkoa.
- Bilkuretan egiazki egindako agerpenak.
- Udalbatzarraren izenean hari lotutako kudeaketak egiteko izandako gastuen kalte-ordainak.

Ordainsari horietariko bakoitza zehaztuko dugu jarraian, izan ere eurak dira toki erakundeetako kideek jaso ditzaketen bakarrak.

ALDIZKAKO SOLDATA FINKOAK

TJOLren 75.1 artikulua honela dio:

"Toki erakundeetako kideak erabateko ihardunari loturik badaude, ordainsariak jasoko dituzte euren karguetan aritzeagatik. Horrelakoetan, alta emango zaie Gizarte Segurantzari eta toki erakundeek euren gain hartuko dute dagozkien enpresa kuota ordaintzea, aurreko artikuluan xedatutakoa gertatu ezik.


Ordainsari horiek jasoz gero, horiekin batera ezin izango da beste ordainsaririk hartu, ez administrazio publikoen, ez horien menpe dauden ente, erakunde eta enpresen aurrekontuen kontura".

Hortaz, erabateko iharduneari bete behar dira karguak, aldizkako soldata finkoa jaso ahal izateko.

AFA, oster, TJOLaren zorrotasunetik aldentzen da: erabateko ihardunaren ordean, lehentasunezko iharduna aipatzen du, kargu horretan ezezik, bestelako iharduera osagarrietan ere aritzeko auketa emanik, udalari zor zaion ihardunari kalterik egin gabe.

Gizarte Segurantzaren araubide Orokorrean izena eta alta ematea beharrezkoa da, soldata finko hori jasotzeko, 1986ko martxoaren 12ko Aginduan araututakoaren arabera (martxoaren 21eko 69. EAO).

Aurrekontuan zehaztutako kontsignazio osoan jasotzen den aurrekontu mugapenarekin hasten da eskubide hori garatzeko bidea.



Hura aintzat hartuta, alkateak erabakiko ditu karguen kopurua eta erabateko ihardunagatik jaso beharreko ordainsariaren zenbatekoa.

Osoko Bilkurak onartu baino lehen, dagozkion Kontuhartzaileak eta Informazio batzordeak eman beharko dute haren berri (AFaren 82.2 artikulua).

BILKURETAN EGINDAKO AGERPENAK

AFaren 13.6 artikulua honela dio:

"Erabateko ihardunari loturik ez dauden batzarkideei bakarrik ordainduko zaizkie partaide diren organo kolegiatuen bilkuretan egiazki egiten dituzten agerpenak, osoko bilkurak adierazitako diru kopuruarekin.

Halaz guztiz ere, gisa horretako kalte-ordainak denek hartu ahalko dituzte beste kasu hauetan: udalbatzarraren menpean egon eta nortasun juridiko independentea duten erakundeen organo artezkariak, udal kapitala edo kontrola duten enpresen administrazio kontseiluak edota langileak hautatzeko proben epaimahaiak".

Beraz, bilkuretan egiazki egiten dituzten agerpenak erabateko ihardunari loturik ez daudenek kobratu ahalko dituztela ezartzen da artikulua horretan. Erabateko ihardunari loturik direnek zehaztu diren organo kolegiatu batzuetan egindako agerpenak baino ez dituzte kobratuko.

Horrenbestez, zatiko ihardunarekin bilkuretan egindako agerpenak baino ez dira ordainduko.

Agerpenei dagozkien sariak ezin dira finkoak eta aldizkakoak izan, bilkuretan egindako agerpenen arabera ematen baitira.

Osoko Bilkurak agerpen bakoitzari dagokion sariaren zenbatekoa erabakiko du aurrekontu kontsignazioaren barruan. Hura kobratzeko, bilkuretara egiazki joan dela egiaztatatu beharko da.

KALTE-ORDAINAK

Batzarkideek kalte-ordainak jaso ahalko dituzte Batzarraren Osoko Bilkuran erabakitzen dituen zenbateko eta baldintzetan.

AFAn zehazten da bai karguak erabateko ihardunari gabe betetzen duten kideek, bai erabateko iharduneari betetzen dutenek izango dutela kargua betetzean izaten diren gastuengatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea, gastu horiek efektiboak badira eta aldez aurretik agiri bidez frogatzen badira. Aurrekontu kontsignazioaren barruan, Osoko Bilkurak erabakiko du zein zenbateko, egoera eta baldintzetan jasoko diren.

Dena den, gutxienezko hiru egocra hauek bete behar dira:

- gastua kargua betetzearen ondorioz egitea.
- gastua efektiboa izatea, hau da, egiazki egitea.
- agiri bidez frogatzea.

Hau da toki erakundeetako kideentzat indarra duten ordainketen sistema.

INTRODUCCIÓN

En respuesta a la solicitud de fiscalización realizada por el Ayuntamiento de Ribera Baja, ante la imposibilidad de realización de la misma por la no disponibilidad de medios suficientes y no estar contemplado en el Plan de Trabajo de este TVCP/HKEE, se ha procedido a la realización de una revisión limitada a través tanto de la documentación incluida en la Cuenta General del Ayuntamiento del ejercicio 1994, como de la información adicional aportada por el Ayuntamiento en la reunión de trabajo mantenida entre personal del TVCP/HKEE y el Secretario municipal el día 15.11.95, y del análisis de la encuesta de control interno que forma parte del diagnóstico de Entidades Locales del ejercicio 94.

ALCANCE

El alcance de la revisión realizada es el siguiente:

- Análisis de los procedimientos contables aplicados.
- Análisis del presupuesto aprobado y Bases de ejecución presupuestaria.
- Análisis de la situación del personal en el ejercicio 1994.
- Análisis de los procedimientos de contratación administrativa utilizados, sin que ello consista en un análisis exhaustivo de los expedientes.
- Análisis del endeudamiento.

CONCLUSIONES

A continuación exponemos las conclusiones obtenidas del trabajo realizado, clasificadas en las diferentes áreas de actuación, sin que las mismas puedan considerarse como el resultado de una fiscalización, ni puedan generalizarse a aspectos que no se mencionen expresamente en las mismas.

1. CONTABILIDAD Y PRESUPUESTOS

Los presupuestos del Municipio de Ribera Baja se confeccionan de acuerdo con la normativa foral vigente en la materia (NF 9/91, y DF 985/92). Al presupuesto municipal se acompaña la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria, cuyo contenido es razonable.

La Cuenta General aprobada por el Ayuntamiento, no incluía el cálculo del Resultado Presupuestario del ejercicio ni el del Remanente de Tesorería a 31.12.94. Dichas magnitudes ascienden a:

	Miles-ptas.
Resultado Presupuestario	(1.704)
Gastos financiados con Remanente de Tesorería de ejercicios anteriores	7.279
Resultado Presupuestario ajustado	5.575



	Miles-ptas.
Deudores pendientes de cobro	3.001
Menos saldos de dudoso cobro	(818)
Acreedores pendientes de pago no presupuestarios	2.715
Fondos liquidados de Tesorería	9.502
Remanente líquido de Tesorería	8.970

La contabilización de los gastos se está realizando en función de los pagos reales, por lo que no existe saldo pendiente en concepto de acreedores por operaciones presupuestarias.

Si bien, según se ha indicado anteriormente, la Cuenta General no incluía los cálculos del Resultado Presupuestario y del Remanente de Tesorería, nos consta que han sido calculados por el Secretario-interventor con posterioridad. Consideramos que dichos importes deben ser comunicados al Pleno de la Corporación, como una corrección a la Cuenta General, aprobada en la sesión celebrada el día 27 de octubre de 1995.

Según la normativa aplicable a las Entidades Locales menores de 5.000 habitantes, los gastos pueden registrarse acumulando las fases presupuestarias de Autorización, Disposición, y Ordenación del gasto. En ningún caso el registro debe, ni puede, hacerse por los pagos reales.

La utilización del criterio de caja para el registro de gastos, conlleva que al cierre del ejercicio queden sin registrar gastos correspondientes al mismo, y que los saldos pendientes de pago no sean los reales.

Igualmente, el registro de los ingresos se realiza en el momento de su cobro, contabilizándose el pendiente de cobro cuando se traspasan los recibos/liquidaciones impagados a la Agencia Ejecutiva. Teniendo en cuenta que los traspasos a la Agencia Ejecutiva se suelen realizar en el ejercicio siguiente al que corresponden las liquidaciones y recibos, al cierre del ejercicio se quedan sin registrar los importes pendientes de cobro generados en el mismo.

En cuanto al cumplimiento de las limitaciones en la realización de gastos impuestas por el presupuesto, se ha de indicar que las modificaciones presupuestarias para dotar de crédito aquellas partidas cuya dotación es insuficiente para cubrir las necesidades totales, se realizan, en general, con posterioridad a la ejecución del gasto. Como conclusión a lo anterior, se están realizando gastos sin cobertura presupuestaria suficiente, si bien dicha irregularidad se subsana con posterioridad.

Además las modificaciones presupuestarias, se están haciendo exclusivamente bajo la figura de "créditos adicionales", cuando sería aconsejable restringir su uso sólo al caso en que no pueda aplicarse el régimen de transferencias.

La utilización del régimen de transferencias de crédito, agilizaría la realización de las modificaciones presupuestarias y disminuiría la carga de trabajo administrativo.



2. SITUACIÓN FINANCIERA

Deuda viva a 31.12.94.....	27.409 miles de ptas.
% Deuda sobre Presupuesto.....	54,7%
% Deuda sobre derechos liquidados.....	63,3%
Carga financiera 1994.....	5.990 miles de ptas.
Ahorro bruto (1).....	14.455 miles de ptas.
Ahorro neto (2).....	8.465 miles de ptas.
Nivel de endeudamiento (3).....	14,27%
Límite de endeudamiento (4).....	34,45%
Gasto público per cápita (5).....	104 miles de ptas.
Índice de inversión (6).....	25,53%
Presión fiscal en Tributos Locales (7).....	43,6 miles de ptas.
Dependencia de subvenciones (8).....	46,65%

(1) Ingresos corrientes (cap. 1 a 5) - Gastos corrientes (cap. 1, 2 y 4)

(2) Ahorro bruto - Carga financiera (cap. 3 y 9 de gastos)

(3) Carga financiera / Ingresos corrientes x 100

(4) Ahorro bruto / Ingresos corrientes x 100

(5) Gasto del ejercicio / nº de habitantes

(6) Gastos inversión + Gastos subvención capital / Total Gastos

(7) Ingresos tributarios (cap. 1, 2 y 3) / nº de habitantes

(8) Ingresos por transferencias (cap. 4 y 7) / Total Ingresos


A los ratios que figuran en el cuadro anterior habría que matizar que la carga financiera futura se verá incrementada por la finalización del período de carencia de un préstamo de 20.000 miles de ptas., que representa aproximadamente una amortización anual de 1.540 miles de ptas.

Aun cuando la situación financiera del Ayuntamiento a 31.12.94 puede considerarse aceptable en cuanto a su nivel de endeudamiento, es necesario tener en cuenta que cualquier proyecto de inversión a realizar en el futuro, sin un estudio exhaustivo de su financiación, puede generar tensiones financieras de difícil resolución. Además, hay que señalar que el endeudamiento representa un porcentaje significativo sobre los derechos líquidos totales, aunque la carga financiera anual que genera no sea excesiva, debido a que el préstamo más importante, que asciende a 20.000 miles de ptas., tiene un plazo de amortización de 15 años.

Un aspecto a considerar para no incrementar el endeudamiento es evitar la promoción pública directa de viviendas sociales, acudiendo a la promoción concertada de viviendas de protección oficial ó a convenios con el Gobierno Vasco.

3. PERSONAL

- La plantilla del Ayuntamiento, a 31.12.94, se compone de:
 - 1 Secretario-interventor, funcionario de habilitación nacional.
 - 1 alguacil, funcionario, que se ha jubilado en 1995.



Además, hay contratada una auxiliar administrativo a tiempo parcial, cuya plaza está presupuestada en 1995.

- Hay gastos de la Mutua Foral por 389 miles de ptas., en los que está pendiente de registro un gasto de 32 miles de ptas. del mes de diciembre de 1994 y además recoge gastos del ejercicio 93 por 47 miles de ptas.
- A pesar de la adhesión a la Seguridad Social de los funcionarios del Ayuntamiento, se han seguido pagando las cuotas de Elkarkidetza, el gasto del ejercicio ha sido de 494 miles de ptas. y en ellas se recogen pagos correspondientes al ejercicio 93 por 71 miles de ptas. y está pendiente de registro contable la cuota del mes de diciembre de 1994.
- En cuanto a los corporativos, está establecida una dieta de 65 miles de ptas. al semestre con independencia de su asistencia o no a Pleno, libre de retenciones.

Además, se halla consignada en el art. 47.3 de la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria una retribución de 1.500 ptas./hora por resarcimiento de gastos ocasionados en el ejercicio por el desempeño de las funciones de alcalde o concejal, cuyo contenido no se ajusta a la legalidad vigente, de acuerdo con el informe jurídico que se adjunta como anexo.

El gasto ocasionado en el ejercicio 94 por todos los conceptos reseñados anteriormente sobre dietas y retribuciones a corporativos, es de 954 miles de ptas.

4. CONTRATACIÓN ADMINISTRATIVA

En el análisis del gasto realizado se han detectado las siguientes deficiencias:

- En cuanto a los contratos de arrendamiento del bar Casa Cultura y explotación del frontón, piscina y bar de las instalaciones deportivas, debemos señalar que si bien se adjudican mediante concurso público, el PCAP no incluye los criterios de adjudicación, teniendo especial relevancia en el último de los contratos citados, por recaer la adjudicación en el licitador que no ofrecía las mejores condiciones económicas.
A efectos de recomendación indicamos que para contratos futuros, se debiera hacer un estudio más exhaustivo de las obligaciones a cargo del arrendatario y de la duración de los contratos.
- Con respecto al contrato de arrendamiento del silo cedido al Ayuntamiento por el SEMPA, hay que señalar que el arrendamiento de la cesión de uso del silo, puede incumplir las normas sobre legislación de patrimonio vigentes, así como dar lugar a la suspensión de la cesión por parte del organismo estatal.



- Adquisición de un vehículo con precio aplazado mediante la firma de un contrato con una empresa financiera, en el que se da una entrada y se financia el resto en 36 meses a un tipo del 22,17% nominal. Esta operación está prohibida en la legislación y además resulta poco rentable económicamente.
- Las adquisiciones de suministros de productos para la piscina municipal se realizan de forma directa, sin expediente administrativo, contrato ni concurrencia. Por lo que se recomienda que se realicen los trámites administrativos previstos en la legislación vigente que salvaguarden el cumplimiento de los principios de publicidad y concurrencia.
- El Ayuntamiento ha realizado un gasto de 1.994 miles de ptas. en actividades socio-culturales y deportivas que se corresponden con los pagos realizados a profesores de talleres infantiles, gimnasia de mantenimiento, trabajos manuales y costura, para los que no existe contrato, no se les ha exigido la licencia fiscal correspondiente, y no se les ha realizado retención a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.
- En el expediente de construcción de la red de saneamiento de aguas en la zona "Venta Bullón - Camino Bayas - Remar" adjudicada por contratación directa por 3.145 miles de ptas. entre 3 ofertas a la más ventajosa, se produce un incremento del precio de adjudicación del 22% que no se encuentra aprobado ni soportado documentalmente en el expediente.
- En el concepto 642 Urbanismo y Planeamiento, con un gasto de 1.325 miles de ptas., se han realizado pagos de informes urbanísticos y topográficos a personas físicas, en los que no se ha practicado retención a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.
- En el expediente de adquisición de suelo destinado a la construcción de viviendas de promoción pública en Rivabellosa por 30.352 miles de ptas. se han detectado las siguientes deficiencias:
 - No nos consta la existencia de informe justificativo de la exención de concurrencia.
 - No consta tasación pericial de los solares adquiridos.



ANEXO 1

INFORME SOBRE LAS RETRIBUCIONES A LOS MIEMBROS DE LAS CORPORACIONES LOCALES

La Ley 7/1988, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, regula, dentro del capítulo dedicado al Estatuto de los miembros de las Corporaciones Locales, las retribuciones de los mismos en su artículo 75.

Dicho artículo ha sido desarrollado por el artículo 13 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, de 28 de noviembre de 1986 (ROF).

Esta normativa permite tres formas de percepción de retribuciones cuales son:

- El sueldo fijo.
- Las asistencias por concurrencia efectiva a sesiones.
- Las indemnizaciones compensatorias de gastos producidos en nombre de la Corporación, por gestiones relativas a la misma.

Pasaremos, por tanto, a identificar cada una de estas percepciones, únicas que pueden retribuir a los miembros de las Corporaciones Locales.

SUELDOS FIJOS Y PERIÓDICOS

El artículo 75.1 de la LBRL dice:

"Los miembros de las Corporaciones Locales percibirán retribuciones por el ejercicio de sus cargos, cuando los desempeñan con dedicación exclusiva, en cuyo caso serán dados de alta en el Régimen de la Seguridad Social, asumiendo las Corporaciones el pago de las cuotas empresariales que corresponden, salvo lo dispuesto en el artículo anterior.

En el supuesto de tales retribuciones, su percepción será incompatible con la de cualquier otra retribución con cargo a los Presupuestos de las Administraciones Públicas y de los Entes, Organismos y Empresas de ellos dependientes".

Por tanto, para que se pueda cobrar un sueldo fijo y periódico tienen que desempeñarse los cargos en régimen de dedicación exclusiva.

Del rigor que demuestra la LBRL se separa lo dispuesto en el ROF ya que sustituye la dedicación exclusiva por la dedicación preferente al cargo que puede concurrir con actividades de tipo marginal, sin que puedan causar detrimento a su dedicación a la Corporación.

Para la percepción de este sueldo fijo se hace necesaria la afiliación y alta al Régimen General de la Seguridad Social, tal y como se regula en la Orden de 12 de marzo de 1986 (BOE nº 69 de 21 de marzo).



La forma en que se desarrolla este derecho comienza con la limitación presupuestaria contenida en la consignación global que se determina en el Presupuesto.

Tenido esto en cuenta, será el Alcalde quien proponga el número de Cargos y la cuantía de la retribución a percibir por la dedicación exclusiva.

Antes de ser aprobado por el Pleno deberá ser informado por la Intervención y por la Comisión Informativa correspondiente (artículo 82.2 del ROF).

ASISTENCIAS POR CONCURRENCIA A SESIONES

El artículo 13.6 del ROF dice:

"Sólo los miembros de la Corporación que no tengan dedicación exclusiva percibirán asistencias por la concurrencia efectiva a las sesiones de los órganos colegiados de que formen parte, en la cuantía que señale el Pleno de la misma.

No obstante, todos podrán percibir esta clase de indemnizaciones cuando se trate de órganos rectores de Organismos dependientes de la Corporación Local que tengan personalidad jurídica independiente, de Consejos de Administración de Empresas con capital o control municipal o de tribunales de pruebas para selección de personal".

Se fija en este artículo, por tanto, que quienes no tengan dedicación exclusiva podrán cobrar asistencia por concurrencia efectiva a sesiones. Quienes tengan dedicación exclusiva sólo las cobrarán por la asistencia a determinados órganos colegiados especificados.

En consecuencia, la dedicación a tiempo parcial genera únicamente el abono de las asistencias a sesiones.

Las asistencias no pueden ser fijas y periódicas dado que su percepción está en función de la concurrencia a sesiones.

El Pleno dentro de la consignación presupuestaria, establecerá el importe de cada asistencia. Para su cobro deberá acreditarse la concurrencia efectiva a las sesiones.

INDEMNIZACIONES

Los miembros de las Corporaciones podrán recibir indemnizaciones en la cuantía y condiciones que acuerde el Pleno de la Corporación.

El ROF especifica que tanto los miembros que desempeñan cargos sin dedicación exclusiva como quienes lo hacen en dicho régimen de dedicación, tendrán derecho a percibir indemnizaciones por los gastos ocasionados por el ejercicio del cargo, siempre que sean efectivos y previa justificación documental. Dentro de la consignación presupuestaria, el Pleno acordará las cuantías y los supuestos y condiciones de percepción.



- No obstante, deben darse tres supuestos mínimos:
- que el gasto se ocasione con motivo del ejercicio del cargo.
 - que el gasto sea efectivo, es decir, que se haya producido.
 - que sea justificado documentalmente.

Este es el sistema de percepciones vigentes a favor de los miembros de las Corporaciones Locales.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A/c4.1 - 01005 VITORIA-GASTEIZ
Apdo. 2239 P.I. - 01080 VITORIA-GASTEIZ
Tel. (945) 14 30 60 Fax (945) 14 07 75